

5

Euskarak duen *framing* berri baten premia asetzeko proposamena artikuluz

Paul Bilbao Sarria

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua

pbilbao@kontseilua.org

Sarrera-data: 2012-10-30 / Onartze-data: 2013-01-15

Laburpena. Euskararen inguruko estrategia orokor baten baitan kokatu du Paul Bilbaok *framing* berriari buruzko hausnarketa, alegia, hizkuntza-politikari, komunikazioari eta dinamika sozialari lotuta. Jendearen pertzepzioaren eta errealtatearen arteko harremanetan eragin behar da aldaketa soziala lortu nahi bada, horretarako pentsamenduan eraginez. Ikuspegi horretatik heldu dio Iñaki Martínez de Lunaren lanari; bat datoz biak mezu unibertsalik ez dagoela esaterakoan: pertsona bakoitzari (edo pertsona talde bakoitzari) hitz egiterako orduan norbanako hori edota talde hori ongi ezagutzea ezinbestekoa da benetan eraginkorrak izateko. • **Hitz-gakoak:** *euskara, komunikazioa, hizkuntza-politika, hizkuntza-jarrera.*

Abstract. Paul Bilbao has set his reflection on the new framing against the background of a general strategy on Basque, in other words, linked to language policy, communication and social dynamics. Influence has to be exerted on the relations between people's perception and reality if one is setting out to bring about social change, by influencing thought for this purpose. He has tackled Iñaki Martínez de Luna's work from that perspective; they both concur on the point when they say there is no universal message: in order to be truly effective, it is essential when speaking about each individual person (or each group of people) to be fully familiar with that individual or group. • **Key words:** *Basque, communication, language policy, language attitude.*

Une ezin egokiagoan dator Iñaki Martínez de Lunak mahai gaineratutako artikulua. Hamarkadak daramatza euskalgintza lanean, euskararen normalizazioa helburu eta azken hilabeteotan egin diren hainbat lanek (inkesta soziolinguistikoa eta euskararen kale erabileraren neurketa, kasu), euskalgintzan azken garaian genituen susmoak berretsi besterik ez dute egin. Egindako lanak emaitzak eman dituenik ezin uka daiteke, izan ere, aurrerapausoak eman egin dira. Gai izan gara proiektu asko sortu eta sendotzeko eta horri esker euskararen normalizazioak urratsak eman ditu. Hori, batez ere, herri mugimendutik egindako lanari esker izan da. Halere, oraindik ez gaude lortu nahi dugun helburutik, euskararen normalizaziotik, gertu eta horrek egindako lana eraginkortzeko beharra ikustera garamatza.

Horrexegatik Kontseiluan ere herri mugimendu antolatutik orain arte egindako lana nola eraginkortu pentsatzen hasiak gara, eta aurrerago agertuko dugun moduan etorkizuneko bidaian komunikazioa ardatz bihurtu behar dugu. Hortaz, egiten ari garen hausnarketa horrek aukera ematen digu gai hauen inguruan pentsatzen ari garenaz hitz egiteko, nahiz eta oraindik ez dugun egin nahi genukeen lana amaitu. Halere, hilabete batzuen buruan tresna oso bat plazaratzeko aukera izango dugu.

Akaso, arrazoi horrengatik egokiagoa iruditu zaigu Iñaki Martínez de Lunaren artikuluari buruzko irakurketa xehea egin beharrean, eztabaida aberasteko beste hainbat elementu mahai gaineratzea. Hortaz, jarraian egingo dugun irakurketa ez zaio zuzenean lotzen Iñakik adierazitakoari. Aitzitik, artikulua irakurtzeko beste elementu batzuk eranstea da gure helburu nagusia.

Arestian aipatu bezala, bizi dugun testuinguruak aurrera begira jartzean hainbat gauza aldatzeko beharra jarri digu mahai gainean. Orain artean egindako lanaren balorazioa egiteak ematen dizkigun emaitzak batetik, eta bestetik, bizi dugun egoerak berak iradokitzen diguna. Hizkuntza-politikan jauzi kualitatiboak emateko beharra jendartean hedatua dago, euskaraz bizi nahi duten herritarrek erantzunak, emaitzak, nahi eta behar dituzte eta politikoki borondatez jokatzen baldin bada, aldaketa horiek egiteko abagunea zabaltzen ari dela ikusten dugu.

*Framing*az hitz egiten hasi aurretik, uste dugu beste elementu batzuk ere txertatu behar ditugula. Izan ere, interpretazio-eskemei buruz hitz egiten hasi aurretik, beharrezkoa da helburuez hitz egitea, aldaketa sozialaz hitz egitea eta, horren guztiaren ondoren, hitz egin beharko dugu errealitatearen interpretazio-eskemei edota *framing*ari buruz. Halere, hausnarketak haratago joan behar du eta horrekin batera posiziona-

Halere, oraindik ez gaude lortu nahi dugun helburutik, euskararen normalizaziotik, gertu eta horrek egindako lana eraginkortzeko beharra ikustera garamatza.

Hortaz, jarraian egingo dugun irakurketa ez zaio zuzenean lotzen Iñakik adierazitakoari. Aitzitik, artikulua irakurtzeko beste elementu batzuk eranstea da gure helburu nagusia.

**Euskararen
normalizazioa
erdietsi nahi
badugu
ezinbestekoa
izango da hiru
plano horiek
(hizkuntza-
politika,
komunikazioa
eta dinamika
soziala)
estrategia orokor
baten baitan
landu eta
garatzea.**

menduaz ere hitz egin beharko dugu, xede-taldeen, euskalgintzaren kontakizunaz, kanalez, etab.

Azken finean, estrategia osoa eraiki behar dugula da gure teoria eta, horretarako, osotasunean landu behar da gaia. Esan bezala, hor kokatzen dugu *framingari* buruzko hausnarketa ere. Hori horrela egin ezean, eta estrategia berria osatzeko behar diren atal guztietatik bakarria modu isolatuan landuz gero, akatserako arriskua legoke gure ustez.

Hizkuntza baten normalizazio-prozesuak, kasu guztietan, dimentsio politikoa eta soziala ditu eta euskararen kasuan ere horrela da. Normalizazio-prozesuaren dimentsio politikoari lotzen bagatzaizkio, hizkuntza-politika dugu elementurik azpimarragarriena, baina hizkuntza-politikarekin soilik ezinezkoa da hizkuntza bat normalizatzea. Ezinbestekoak dira, gutxienez, beste bi osagai: hizkuntza-politika eragingarri hori eskatu eta babestuko duen herri ekimen edo dinamika sozial zabala eta aurreko biei zentzua emango dien komunikazio-estrategia sendo eta iraunkorra. Ondorioz, ezinezkoa da, ezinezkoa izango da, euskararen normalizazioak suposatzen duen aldaketa sozial garrantzitsua hiru elementu horietako bakar baten bidez erdiestea.

Tabako-erretzaileen ohiturak aldatzeko nola jardun duten ikustea besterik ez dago. Erretzaileen ohiturak aldatzeko pentsamendu mailako aldaketa eragin da (erretzea txarra da, kalte egiten die osasunari eta ingurukoei...), politika mailako neurriak hartu dira (toki publikoetan erretzea debekatuz, isunak jarriz...) eta nolabaiteko dinamika soziala ere bultzatu da (ez-erretzaileen bidez) neurri horien aldekatasuna lantzeko.

Euskararen normalizazioak ere ohitura aldaketa suposatzen du, baina ziurrenik aurrez aipatutako adibide horretan baino aldaketa zailagoa eta sakonagoa. Besteak beste, hamar herritarretik zazpi hizkuntza berri bat ikasiko dutela aurreikusten ari garen heinean, gizarte-aldaketa sakonaz hitz egiten ari gara, ez ohitura-aldaketa soilaz.

Esan bezala, datozen hamarkada hauetan euskararen normalizazioa erdietsi nahi badugu ezinbestekoa izango da hiru plano horiek (hizkuntza-politika, komunikazioa eta dinamika soziala) estrategia orokor baten baitan landu eta garatzea. Gizarte-aldaketaz ari gara eta horretarako ikuspegi oso bat, euskararen pertzepzio jakin bat, kultura oso bat eraiki behar dugu. Horrela, ondorengo lerro hauetan estrategia orokor horren baitan komunikazio-mailan garatu beharreko estrategia diseinatzeko zenbait ideia garatuko dugu.

Hasteko, argi izan behar dugu euskararen normalizazioa jendearen buruan jokatzen dela, norbanako bakoitzak euskarari buruz duen per-

tzepzioan. Izan ere, Thomas-en teorema argi baino argiago adierazten duen moduan, norbanakook errealitateaz dugun pertzepzioaren arabera jokatzeko dugu: *Pertsonek egoerak errealak balira bezala definitzen badituzte, egoera horiek errealak dira beren ondorioetan.*

Berdin dio gehiengoak bere bizitzarako edo lanerako ingelesa jakin beharrik ez izatea, inork behar-beharrezkoa dela pentsatzen badu, pertzepzio horren arabera jokatzeko du eta sekulako garrantzia emango dio ingelesa jakiteari.

Euskararen normalizazioa erdietsi nahian gabiltzanok beti presente izan beharko genuke ideia hori. Errealitatea aldatu nahi dugun heinean, gizarte aldaketa sakona eragin nahi dugun heinean, argi izan behar dugu (onerako eta txarrerako) jendearen pertzepzioa dela “benetako” errealitatea, beren jarduna baldintzatzen duen errealitatea eta, ondorioz, pertzepzio hori, errealitate hori aldatuz lortuko dugula aldaketa.

Aurrekoaren ildo beretik argi izan behar dugu hitzak ez direla neutroak. Gauza edo fenomeno jakin bat era askotara izenda edo defini daiteke, eta izendapen edo definizio horietako bakoitzak ondorio desberdinak eragiten ditu jendearengan. Adibidez, Nafarroako Gobernuak “hondakinen balorizazioa” kontzeptua darabil Olaztiko Portland enpresan hondakinak errausten hasiko direla iragartzeko, ez du “hondakinen errausketa” neutroagoa erabiltzen eta, are gutxiago, “hondakinen errausketa toxikoa”. Hori ez da kasualitatea, hor azterketa bat dago, bai eta helburu jakinak dituen hizkuntzaren erabilera jakin bat ere.

Azken urteotan, Iraken aurkako gudetan edo antzeko inbasioetan, AEBek eta enparauek egindako hitzen erabilera interesatua ere oso nabarmena izan da. Azterlan asko argitaratu dira jada guda edo okupazio militarrek zuzitzeko Estatu batzuek egin duten hizkuntzaren erabileraz (Chomsky, Sierra Caballero...). Honela, ia oharkabea, munduko hedabide nagusienetan errealitatea definitzeko hitz jakin batzuk erabiltzen hasten dira: guda-zelaia *operazio agertoki* bilakatzen da (*theater of operations*), herrialde baten inbasio edo okupazioa *eraso prebentibo* (*preventive attack*), hainbat hildako eragiten dituen eraso militarra *kolpe kirurgiko* (*surgical strike*), hildako zibilak *alboko kalte-ondorioak* (*collateral damage*) edota okupatutako hiri edo gunek *askatutako eremu* (*liberated zones*).

Gertakari edo fenomeno lazgarriak iritzi publikoaren aurrean irensgarriago egiteko eufemismoen erabilera ez da berria, eta kontrako norabidean ere erabiltzen dira. Horrela, ohikoak diren gertakari edo neurriak onartezin edo jasangaitz bezala agertzen dituzte. Esaterako, Osakidetzarako lanpostu guztietan gaztelania jakin behar izatea normala da eta ez da aipatu ere egiten, baina deialdi berean lanpostu gutxi ba-

Argi izan behar dugu jendearen pertzepzioa dela “benetako” errealitatea, beren jarduna baldintzatzen duen errealitatea eta, ondorioz, pertzepzio hori, errealitate hori aldatuz lortuko dugula aldaketa.

**Norbanakook
etengabe, uneoro,
erabiltzen ditugu
interpretazio-
eskema horiek
mundua
ulertzeko,
munduari
zentzua emateko
eta honela gure
jarduna
sinplifikatu eta
errazteko.**

tzuetan euskara-maila jakin bat egiaztatu behar izatea gehiegizkoa, onartezina balitz bezala agertzen da, “inposatu”, “behartu”, “derrigortu” eta antzeko hitzen bidez.

Batzuetan oso agerikoa da hitzen erabilera interesatu hori, baina beste askotan hitz jakin batzuen erabilera oso hedatua dago eta hasieran agerikoa izan zitekeena gerora, denborarekin, naturalizatu eta ohiko bilakatzen da, eta zenbaitetan guk geuk ere, euskararen aldeko, erabiltzen ditugu. Adibidez, zergatik esaten diogu “derrigortasun-data” epe-muga jakin baterako hizkuntza-gaitasuna egiaztatu beharrari eta ez “gaitasun-data” edo “egiaztatze-data”?

Honetaz guztiaz ere oso kontziente izan behar dugu gaur egun euskararen normalizazioarekin zerikusia duten kontzeptu edota izendapenen egokitasuna aztertzeko, komeni ez zaizkigunak identifikatu eta ez erabiltzeko (indargabetzeko), baina batez ere guk bilatzen dugun pentsamendu-aldaketa hori erdiesteko ahalik eta hitz egoki eta eragin-korrenak bilatu eta hedatzeko.

Azaltzen ari garen hausnarketa honetan kokatu behar da azken urte hauetan Kontseiluak abian jarri duen “euskaraz bizi nahi dut” dinamika. Pentsamendu mailako aldaketa bilatzen dugun heinean, lehen pertsonan egindako esaldia hautatu da. Norbanakoon jardun osoa, egunerokotasuna biltzeko helburuz “bizi” aditza erabili da; “nahia” hobetsi da orain arte erabilitako eskubide aldarrikapenaren aurretik... Ikus daitekeenez, esaldi xume horren atzean hausnarketa sakon eta zabala egon da. Esaldi horren atzean estrategia oso bat dago, lehen fase batean ideiaren, esaldiaren hedapena eta ikustaraztea bilatzen duena, baina, poliki-poliki, denborarekin norbanakoon baitan pentsamendu indartsu bilaka dadin helburu duena.

Hitzak garrantzitsuak dira oso, eta tentu handiz erabili behar ditugu, baina hitz batzuk are garrantzitsuagoak dira, testuinguru jakin batean aipatze hutsarekin mundu oso bat, ideia multzo bat ekartzen dutelako norbanakoen gogora, norbanakoen pentsamendura. George Lakoff hizkuntzalariak *Don't think of an elephant* liburuan ederki azaltzen duen bezala, badira hitz edo kontzeptu jakin batzuk mundua ikusteko eta munduan egoteko era jakin bat iradokitzen dutenak eta hori ez da kasualitatea, hori *frame* edo errealitatea interpretatzeko eskemengatik da.

Norbanakook etengabe, uneoro, erabiltzen ditugu interpretazio-eskema horiek mundua ulertzeko, munduari zentzua emateko eta honela gure jarduna sinplifikatu eta errazteko. Gure egunerokoa ulertzeko eta, zer esanik ez, erabakiak hartzeko, hausnarketa sakon eta arrazoizkoa egin beharko bagenu, oso nekeza eta konplexua litzateke eta nolabait gure bizia, gure jarduna sinplifikatzeko horrelako galbaheak baliatzen

ditugu. Horregatik, hain zuzen ere, oso beharrezkoa iruditzen zaigu definitu behar dugun estrategia berriaz hitz egiten dugunean *framingaz* hitz egitea.

Hainbat azterlanek frogatu dutenez (Susan T. Fiske, Shelley E. Taylor) gizakiok izatez “nagi kognitiboak” gara, alegia, ahalik eta gutxien pentsatzen ahalegintzen gara eta, besteak beste, horrelako eskema edo galbaheak erabiltzen ditugu informazioa era azkar eta errazean prozesatzeko.

Euskararen normalizazioari dagokionean, adibide asko aipa daitezke eta zoritxarrez ia kasu guztietan euskararen aurkako eragileen eskutik etorritakoak. Oso agerikoa da, esaterako, inposizioaren markoa eta horretan zenbait eragilek behin eta berriz erabiltzen dute euskararen aldeko edozein neurri marko horretan kokatzeko. Akaso, larritasun-puntua hartzen du euskararen aldekoek ere bere egiten dutenean aipatu terminoa. Berdin dio gero Euskalgintzatik edo euskararen aldeko indarrendik neurri hori azaltzen saiatzea. *Inposizio* hitza aipatu hutsarekin mezuaren hartzaileek (tartean euskararen alde dauden askok) inposizioaren eskema aktibatzen dute eta galbahe horien arabera interpretatu mezua. Berdin dio kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak arautzen dituen dekretuaz ari garen, Osakidetzako lan deialdiez ari garen... hitz bat erabiltze hutsarekin marko oso bat, interpretazio eskema oso bat, aktibatzen da eta, oso zaila da, ia ezinezkoa, azalpen arrazionalen bidez lehen pertzepzio hori haustea, baldin eta aurrez hartzaileei hitz horrekin beste eskema bat aktibatzeko komunikazio lan sakon, zabal eta iraunkorra egin ez bada.

Esaten ari garena are argiago uler daiteke euskararen aurkako indarrek “taliban” hitzari ematen dioten erabilerarekin. Guztiok dakigu talibana zer den eta taliban izateak zer suposatzen duen. Irudi hori jada eraiki digute eta hor marko jakin bat dago eraikia, nazioartean, urteen poderioz eta hedabideen eskutik... bada euskararen normalizaziorako diskriminazio positiboan oinarritutako edozein neurri proposatzea nahikoa da “taliban” izendapena jaso eta neurri hori milaka herritarren aurrean zentzugabeko inposizio integrista edo fanatiko bezala agertzeko.

Are okerrago, marko horren indarra hain da handia non Euskalgintzako hainbat norbanakok eta eragilek uko egiten dioten hizkuntza-politikaren eremuan neurri betearazleak hartzeari edota arauak betetzen ez direnean zigorrak ezartzeari. Erdaldunak erakarri, seduzitu, limurtu behar ditugu..., baina espainola eta frantsesa dira ezagutu beharreko hizkuntzak Euskal Herrian (euskara ez), eta Espainiako Estatuan 500 lege baino gehiagok gaztelaniaren derrigorrezko erabilera ezartzen dute. Gure ustez, gaur egun euskararen normalizazioari sekulako kaltea egiten

Euskararen normalizazioari dagokionean, adibide asko aipa daitezke eta zoritxarrez ia kasu guztietan euskararen aurkako eragileen eskutik etorritakoak. Oso agerikoa da, esaterako, inposizioaren markoa.

Argiago uler daiteke euskararen aurkako indarrek “taliban” hitzari ematen dioten erabilerarekin.

**Gaur egun
euskararen
normalizazioari
sekulako kaltea
egiten dioten
hiru marko oso
indartsu daude,
eta, zoritxarrez,
euskaltzaleok ere
askotan
errepikatu eta
indartzen ditugu:
inposizioaren
markoa, euskara
zaila da markoa
eta euskara ez da
erabiltzen
markoa.**

dioten hiru marko oso indartsu daude, eta, zoritxarrez, euskaltzaleok ere askotan errepikatu eta indartzen ditugu: **inposizioaren** markoa, **euskara zaila da** markoa eta **euskara ez da erabiltzen** markoa. Euskalgintzak hiru marko horiengandik izurritik bezala alde egin beharko luke, ez elikatu, ez aipatu eta bestelako markoak elikatu eta erabili. Orain arte *elkarbizitza*, *justizia/eskubideak* edota *nortasuna* bezalako kontzeptuetan oinarritu ditugu gure markoak, funtsean balio kolektibo eta emozionaletan. Aldiz, gure aurka erabiltzen dituzten hiru horiek ez dira hain abstraktuak, pertsonalagoak dira eta arrazionalagoak edo pragmatikoagoak. Lehenengoak baztertu gabe, bestelako markoak ere baliatu behar ditugu, esaterako, “euskaraz bizi nahi dut” ideia indartu dezaketen aldaera ezberdinak baliatuz.

Ez dugu uste, hortaz, soilik bi marko egon direnik gaur egun arte. Euskararen aurka dagoenaren parean ez dago, adibidez euskaraz bizi nahi duena. Euskaraz bizi nahi duena erdian dagoela esango genuke. Jar dezagun beste arlo bateko adibide bat hau errazago ulertzeko; generoaz hitz egin dezagun: matxismoa mutur batean kokatzen baldin badugu, feminismoa ez da beste muturrean kokatzen. Beste muturrean emakumezkoen gailentzea modu erradikalean aldarrikatzen dutenak egongo lirateke eta ez feminismoa. Feminismoa bi mutur horien tartean kokatuko litzateke. Berdin gertatzen da hizkuntzaren kontuarekin. Euskaldunak bere hizkuntza-eskubideak aldarrikatzen dituenean, euskaraz bizi nahi duela aldarrikatzen duenean, egoera gutxiagotuan, zapalduan dagoela kontuan izan behar dugu, beraz, ezin da pentsatu euskararen aurka dagoen horren beste muturrean dagoenik.

Esan bezala, euskararen normalizazioa herritarren buruan jokatzen da, euskarak herritarren pentsamenduan duen kokapen edo tokian, alegia, norbanakoak euskaraz duen pertzepzioan. Marketinaren munduan horri posizionamendua esaten zaio. Zehazki, marka batek (beste batzuekiko) bezero edo kontsumitzaileen pertzepzioan duen kokapen edo tokiari esaten zaio posizionamendua. Ikuspegi honen arabera, produktua ez da helburua, produktua bitartekoa da, kontsumitzailearen burura iristeko eta honen pentsamenduan eragiteko bitartekoa. Horregatik esaten da “produktua kontsumitzailearen buruan kokatu behar dela, egoki posizionatu behar dela”.

Baina posizionamendu egokia, lehentasunezkoa, ez da soilik marketin edo komunikazio-bitartekoen bidez lortzen. Bitarteko garrantzitsuak dira baina, sarreran esan bezala, ezinbestekoak dira ere hizkuntza-politika mailako neurriak eta neurri horien aldeko eskari edo mugimendu zabala.

Komunikazio-kanpainekin soilik ez dira euskaltegiak beteko, komunikazio-kanpainekin soilik ez da D eredua gailenduko... Komunikazio-kanpainak behar-beharrezkoak dira, noski, baina borroka jendearen buruan dago, euskarak jendearen pentsamenduan duen toki edo posizionamenduan eta posizionamendu hori lortzeko kultura oso bat eraiki behar da, non euskarak nagusitasun osoa izango duen ikuspegi funtzional, sinboliko zein esperientzian eta hori lortzeko aipatutako hiru bideak dira ezinbesteko: hizkuntza-politika, komunikazioa eta dinamika soziala.

Euskara herritarren buruan egoki "posizionatzeko" ezinbestekoa da estrategia oso bat, estrategia orokor eta iraunkor bat. Ez da nahikoa komunikazioan edota marketinean oinarritutako estrategia batekin. Pentsamendu aldaketaz ari gara eta horretarako ikuspegi oso bat, kultura bat eraiki behar da, euskararen pertzepzio jakin bat. Eta horretarako komunikazio estrategiaz gain, ezinbestekoak dira, gutxienez, beste bi osagai: euskararen aldeko hizkuntza-politika eragingarria eta euskararen aldeko aktibazio soziala. Hiru zutabe horiek batera abian jartzen ez baditugu oso zaila izanen da, ia ezinezkoa, biziraupen mailatik harago jauzi egitea.

Eta hau guztia nori zuzenduko diogu? Bada, kontuan izan behar dugu, ez dagoela mezu unibertsalik, eta pertsona bakoitzari (edo pertsona talde bakoitzari) hitz egiterako orduan, beregan eragina izango duen mezua eta hizkuntza erabili behar dugu. Aldaketa soziala eragin nahi dugu, eta horretarako, beharrezkoa da pentsamenduan eragingo duen mezua erabiltzea. Pentsamenduan eragiteko orduan, baina, beharrezkoa da, ezinbestekoa esango genuke, norbanako hori edota talde hori ongi ezagutzea. Argi dugu zabaltzera jo behar dugula, baina argi dugu urte asko daramagula euskaratik urrun dauden horiek seduzitu nahian eta beste estrategia bat behar dugula gure helburua erdietsi ahal izateko.

Hasieran esan bezala, askoz ere sakonago aztertu nahi izan genuke gaia, baina espazio arazoengatik, aldaketa sozialaren gaia eta *framing*arena aipatu ditugu bereziki. Kontseiluan ere honen inguruan lanean ari gara eta epe laburrean honen azterketa sakona aurkezteko moduan egongo garela uste dugu. ●

Euskararen normalizazioa herritarren buruan jokatzeko, euskarak herritarren pentsamenduan duen kokapen edo tokian, alegia, norbanakoak euskaraz duen pertzepzioan. Marketinaren munduan horri posizionamendua esaten zaio.

Komunikazio-kanpainekin soilik ez dira euskaltegiak beteko, komunikazio-kanpainekin soilik ez da D eredua gailenduko... Komunikazio-kanpainak behar-beharrezkoak dira, noski, baina borroka jendearen buruan dago.